

## GOBERNU BATZARRA

2015. 02. 27

<b>Alkate funtzioetan:</b>	<b>Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko otsailaren hogeita zazpian, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.</b>
<b>Lore Agirre Zipitria</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Hasier de los Rios Soraluze Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.</b>	<b>1.- Aurreko akta onartzea. 2.- Uzturre Zentroko tarifak. 3.- Tolosako Korreo kaleko barne patioan bizikleta gordelekua egiteko obraren esleipena. 4.- Tolosako Martin Jose Iraola kaleko (bikoitiak) zorua berritzeko obraren esleipena. 5.- Bedaioko eliza ingurunea urbanizatzeko eta begiratoki bat sortzeko obraren esleipena.</b>
<b>Idazkaria:</b>	
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	<b>6.- Galtzaundi euskara taldeari diru laguntza. 7.- 2015/290 Alkate dekretua berrestea. 8.- 49/2014 zenbakia duen faktura- zerrenda. 9.- 2/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.</b>
<b>Paulino Alonso Eraso</b>	

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko otsailaren 19an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Uzturre Zentroko tarifak.**

Uzturre Zentroko arduradunek 2015. urterako zerbitzu tarifen proposamena aurkeztu dute.

Proposamena azterturik, ikusi da kontzesioa arautzen duen Plegu Baldintzetan jartzen duena ez dela Euskal Herriko KPIren aldaketara egokitzen Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

1.- Uzturre Zentroko 2015 urterako zerbitzu tarifen proposamena ez onartzea.

2.- Adieraztea Uzturre Zentroko arduradunei tarifa berriak Euskal Herriko KPI-ra egokitu behar direla, salbu Foru Aldundiarekin hitzartuak daudenak.

3.- Tarifak egokituta proposamen berri bat eskatzea, non agertuko diren aurreko urteko tarifak, aplikatuta aldaketa eta tarifa berrien zenbatekoa. Proposamenean KPIa ez bada aplikatzen, aldaketaren zioak agertu beharko dute, beti ere kontzesioaren Plegu baldintzan oinarrituta.

**3.-Tolosako “Korreo kaleko barne patioan bizikleta gordelekua egiteko” obraren esleipena.-**

2014ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Udal Gobernu Batzarrak klausula administratiboen agiria eta espedientea onartu zituen Tolosako “Korreo kaleko barne patioan bizikleta gordelekua egiteko” obrak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuz kontratatzeko.

Eskaintzak aurkezteko epean, honako hauek aurkeztu dira

- Construcciones Uzturpe, S.L.
- Construcciones Vda. de Garmendia, S.L.
- Urkaz Eraikuntzak, S.L.
- Otegi Eraikuntzak, S.L.
- Construcciones Francisco Aierbe, S.L.
- Construcciones Echaide, S.A.

Udal teknikariak, 2015eko otsailaren 2an txostenean dio Construcciones Echaide, S.A., enpresak aurkeztutako eskaintza izan dela proposamen onena eta udalarentzat onuragarriena.

Gauzak horrela, otsailaren 6ko 2015/0238 dekretuaren bitartez, Construcciones Echaide, S.A., enpresari zenbait dokumentu aurkezteko errekerimendua egin zaio.

2015eko otsailaren 24an Construcciones Echaide, S.A., enpresak aurkeztu du aipatutako dokumentazioa.

Horregatik guztiagatik, eta kontua harturik azalpen honetan azaldutakoa eta Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateraruaren 151.4 artikulua xedatuaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**3.-Adjudicación de las obras de “Instalación de un depósito de bicicletas en el patio interior de la calle Korreo” de Tolosa.”.-**

La Junta de Gobierno Local, de fecha 19 de diciembre de 2014, aprobó el expediente y los pliegos de cláusulas administrativas para la contratación por el procedimiento negociado sin publicidad de las obras de “Instalación de un depósito de bicicletas en el patio interior de la calle Korreo” de Tolosa

Durante el plazo de presentación de ofertas, se han presentado las siguientes proposiciones:

Mediante informe, de fecha 2 de febrero de 2015, el técnico municipal considera que la oferta presentada por Construcciones Echaide, S.A., es la más ventajosa y, por tanto, la más beneficiosa para el Ayuntamiento.

En base a ello, mediante decreto 2015/0238, de 6 de febrero se requiere a Construcciones Echaide, S.A., a que presente determinada documentación.

Con fecha 24 de febrero de 2015, la empresa Construcciones Echaide, S.A., presenta la documentación referida.

Por todo ello, teniendo en cuenta lo expuesto en la parte expositiva, y de conformidad al artículo 151.4 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**ACUERDA**

**Lehena.**- Lizitazio egintza baliozkotzat jotzea eta Urkaz Eraikuntzak, S.L., enpresari adjudikatzea Tolosako “Korreo kaleko barne patioan bizikleta gordelekua egiteko” obraren kontratua, hurrengo era honetan:

- Prezioa: 110.126,97 € (BEZa barne)
- Exekuzio epea: 2 hilabetekoa.

Aipatu adjudikazioaren oinarria udal teknikariaren txostenean jarritako arrazoiak izan dira, hauexek, laburbilduta:

**Primero.**- Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a Construcciones Echaide, S.A., el contrato de obras para “Instalación de un depósito de bicicletas en el patio interior de la calle Korreo” de Tolosa, en los siguientes términos:

- Precio: 110.126,97 € (IVA incluido).
- Plazo de ejecución: 2 meses

Dicha adjudicación se realiza en base a los motivos argumentados en el informe emitido por el técnico municipal, y que se resume de la siguiente manera:

#### ENPRESAREN IZENA

- 1.- Construcciones Echaide, S.A..
- 2.- Urkaz Eraikuntzak, S.L.
- 3.- Construcciones Vda. de Garmendia, S.L.
- 4.- Otegi Eraikuntzak, S.L.
- 5.- Construcciones Uzturpe, S.L.
- 6.- Construcciones Francisco Aierbe, S.L.

#### PROSAMEN EKONOMIKOA (BEZa barne)

- 110.126,97 €
- 114.715,60 €
- 115.027,94 €
- 115.570,79 €
- 119.648,93 €
- 121.136,67 €

**Bigarrena.**- Aurkeztu diren lizitzaile guztiei adjudikazio jakinaraztea.

**Hirugarrena.**- Kontratua formalizatzeko hamabost baliodun eguneko epea jartzea, lizitzaileei adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

**Laugarrena.**- Kontratuaren formalizazioa profilean argitaratzea, adjudikatzen denetik berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

**Segundo.**- Notificar la adjudicación a todos los licitadores.

**Tercero.**- Establecer que el contrato se formalizará dentro de los 15 días hábiles a contar desde la notificación de la adjudicación a los licitadores.

**Cuarto.**- Publicar la formalización del contrato en el perfil del contratante, dentro del plazo de cuarenta y ocho días, contados desde la fecha de la adjudicación.

**4.-Tolosako “Martin Jose Iraola kaleko (bikoitiak) zorua berritzeko” obraren esleipena.-**

2014ko abenduaren 19an egindako

**4.-Adjudicación de las obras de “Renovación del pavimento de la calle Martin Jose Iraola (números pares) de Tolosa.**

La Junta de Gobierno Local, de fecha 19 de

bilkuran, Udal Gobernu Batzarrak klausula administratiboen agiria eta espedientea onartu zituen Tolosako "Martin Jose Iraola kaleko (bikoitiak) zorua berritzeko" obrak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuz kontratatzeko.

Eskaintzak aurkezteko epean, honako hauek aurkeztu dira

- Construcciones Uzturpe, S.L.
- Construcciones Vda. de Garmendia, S.L.
- Urkaz Eraikuntzak, S.L.
- Otegi Eraikuntzak, S.L.
- Construcciones Hugar, S.L.
- Construcciones Echaide, S.A.

Udal teknikariak, 2015eko otsailaren 5ean txostenean dio Construcciones Vda. de Garmendia, S.L., enpresak aurkeztutakoa proposamena lizitazioz kanpo ustea, oinarritzko aurrekontua baino handiagoa delako.

Gainontzeko proposamen guztiak aztertuta, Construcciones Echaide, S.A., enpresak aurkeztutakoa izan dela proposamen onena eta udalarentzat onuragarriena dela dio teknikariak.

Gauzak horrela, otsailaren 9ko 2015/0258 dekretuaren bitartez, Construcciones Echaide, S.A., enpresari zenbait dokumentu aurkezteko errekerimendua egin zaio.

2015eko otsailaren 24an Construcciones Echaide, S.A., enpresak aurkeztu du aipatutako dokumentazioa.

Horregatik guztiagatik, eta kontua harturik azalpen honetan azaldutakoa eta Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateraruaren 151.4 artikulua xedatuaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

diciembre de 2014, aprobó el expediente y los pliegos de cláusulas administrativas para la contratación por el procedimiento negociado sin publicidad de las obras de "Renovación del pavimento de la calle Martin Jose Iraola (números pares)" de Tolosa. .

Durante el plazo de presentación de ofertas, se han presentado las siguientes proposiciones:

Mediante informe, de fecha 5 de febrero de 2015, el técnico municipal considera que la oferta presentada por Construcciones Vda. de Garmendia, S.L., rebasa el presupuesto de licitación, y por tanto propone dejar fuera del procedimiento.

Examinadas el resto de las propuestas, se considera la presentada por Construcciones Echaide, S.A., la más ventajosa y, por tanto, la más beneficiosa para el Ayuntamiento.

En base a ello, mediante decreto 2015/0258, de 9 de febrero se requiere a Construcciones Echaide, S.A., a que presente determinada documentación.

Con fecha 24 de febrero de 2015, la empresa Construcciones Echaide, S.A., presenta la documentación referida.

Por todo ello, teniendo en cuenta lo expuesto en la parte expositiva, y de conformidad al artículo 151.4 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

**Lehena.-** Ez onartzea adjudikazioa prozeduran Construcciones Vda. de Garmendia, S.L., enpresak aurkeztutako eskaintza, oinarritzko aurrekontua baino handiago delako.

**Primero.-** No admitir la oferta presentada por Construcciones Vda. de Garmendia, S.L., por que rebasa el presupuesto base de licitación.

**Bigarrena.-** Lizitazio egintza baliozkotzat jotzea eta Construcciones Echaide, S.A., enpresari adjudikatzea “Martin Jose Iraola kaleko (bikoitiak) zorua berritzeko” obraren kontratua, hurrengo era honetan:

**Segundo.-** Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a Construcciones Echaide, S.A., el contrato de obras para “Renovación del pavimento de la calle Martin Jose Iraola (números pares)” de Tolosa, en los siguientes términos:

- Prezioa: 58.617,12 € (BEZa barne)
- Exekuzio epea: 2 hilabetekoa.

- Precio: 58.617,12 € (IVA incluido).
- Plazo de ejecución: 2 meses

Aipatu adjudikazioaren oinarria udal teknikariaren txostenean jarritako arrazoiak izan dira, hauexek, laburbilduta:

Dicha adjudicación se realiza en base a los motivos argumentados en los informe emitidos por el técnico municipal, y que se resume de la siguiente manera:

#### ENPRESAREN IZENA

#### PROSAMEN EKONOMIKOA (BEZa barne)

1.- Construcciones Echaide, S.A.	58.617,12 €
2.- Urkaz Eraikuntzak, S.L.	62.140,68 €
3.- Construcciones Uzturpe, S.L..	63.885,41 €
4.- Construcciones Hugar, S.L.	63.900,98 €
5.- Otegi Eraikuntzak, S.L..	64.923,38€

**Hirugarrena.-** Aurkeztu diren lizitatzaile guztiei adjudikazio jakinaraztea.

**Tercero.-** Notificar la adjudicación a todos los licitadores.

**Laugarrena.-** Kontratua formalizatzeko hamabost baliodun eguneko epea jartzea, lizitatzaileei adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

**Cuarto.-** Establecer que el contrato se formalizará dentro de los 15 días hábiles a contar desde la notificación de la adjudicación a los licitadores.

**Bosgarrena.-** Kontratuaren formalizazioa profilean argitaratzea, adjudikatzen denetik berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

**Quinto.-** Publicar la formalización del contrato en el perfil del contratante, dentro del plazo de cuarenta y ocho días, contados desde la fecha de la adjudicación.

**5.-Bedaiko eliza Ingurunea urbanizatzeko eta begiratoki bat sortzeko” obraren esleipena.-**

**5.-Adjudicación de las obras de “Urbanización del entorno de la iglesia y la creación de un mirador en el casco de Bedaio”.-**

2014ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Udal Gobernu Batzarrak klausula administratiboen agiria eta espedientea onartu zituen "Bedaioko eliza ingurunea urbanizatzeko eta begiratoki bat sortzeko" obrak publizatzerik gabeko prozedura negoziatuz kontratatzeko.

La Junta de Gobierno Local, de fecha 5 de diciembre de 2014, aprobó el expediente y los pliegos de cláusulas administrativas para la contratación por el procedimiento negociado sin publicidad de las obras de "Urbanización del entorno de la iglesia y la creación de un mirador en el casco de Bedaio".

Eskaintzak aurkezteko epean, honako hauek aurkeztu dira

Durante el plazo de presentación de ofertas, se han presentado las siguientes proposiciones:

- Construcciones Uzturpe, S.L.
- Construcciones Vda. de Garmendia, S.L.
- Urkaz Eraikuntzak, S.L.
- Otegi Eraikuntzak, S.L.
- Construcciones Francisco Aierbe, S.L.

Udal teknikariak, 2015eko otsailaren 5ean txostenean dio Otegi Eraikuntza, S.L.-k aurkeztutako proposamena lizitazioz kanpo geratzen dela oinarrizko aurrekontua baino handiagoa den proposamen ekonomikoa eskaintzeagatik.

Gainontzeko proposamen guztiak aztertuta, Urkaz Eraikuntzak, S.L., enpresak aurkeztutakoa izan dela proposamen onena eta udalarentzat ekonomikoki onuragarriena dio udal teknikariak.

Mediante informe, de fecha 5 de febrero de 2015, la técnico municipal estima que la oferta presentada por Otegi Eraikuntzak, S.L., rebasa el presupuesto de licitación, y, por tanto, propone dejar fuera del procedimiento.

Examinadas el resto de las propuestas, la presentada por Urkaz Eraikuntzak, S.L., se considera económicamente la mas ventajosa y, por tanto, la mas beneficiosa para el Ayuntamiento.

Gauzak horrela, otsailaren 9ko 2015/0250 dekretuaren bitartez, Urkaz Eraikuntzak, S.L., enpresari zenbait dokumentu aurkezteko errekerimendu egin zaio.

En base a ello, mediante decreto 2015/0250, de 9 de febrero se requiere a Urkaz Eraikuntzak, S.L., a que presente determinada documentación.

2015eko otsailaren 20an Urkaz Eraikuntzak, S.L., enpresak aurkeztu du aipatutako dokumentazioa.

Con fecha 20 de febrero de 2015, la empresa Urkaz Eraikuntzak, S.L., presenta la documentación referida.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan harturik azalpen honetan azaldutakoa eta Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateraruaren 151.4 artikulua xedatuaren arabera, , Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Por todo ello, teniendo en cuenta lo expuesto en la parte expositiva, y de conformidad al artículo 151.4 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## ERABAKI DU

## ACUERDA

**lehenena.-** Ez onartzea adjudikazioa prozeduran “Otegui Eraikuntzak, S.L.,” enpresak aurkeztutako eskaintza, oinarritzko aurrekontua baino handiagoa delako.

**Primero.-** No admitir la oferta presentada por Otegui Eraikuntzak, S.L., porque rebasa el presupuesto base de licitación.

**Bigarrena.-** Lizitazio egintza baliozkotzat jotzea eta Urkaz Eraikuntzak, S.L., enpresari adjudikatzea “Bedaioko eliza ingurunea urbanizatzeko eta begiratoki bat sortzeko” obraren kontratua, hurrengo era honetan:

**Segundo.-** Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a Urkaz Eraikuntzak, S.L., el contrato de obras para “Urbanización del entorno de la iglesia y la creación de un mirador en el casco de Bedaio”, en los siguientes términos:

- Prezioa: 60733,25 € (BEZa barne)
- Exekuzio epea: 2 hilabetekoa.
- Precio: 60.733,25 € (IVA incluido).
- Plazo de ejecución: 2 meses

Aipatu adjudikazioaren oinarria udal teknikariaren txostenean jarritako arrazoiak izan dira, hauexek, laburbilduta:

Dicha adjudicación se realiza en base a los motivos argumentados en los informe emitidos por el técnico municipal, y que se resume de la siguiente manera:

### ENPRESAREN IZENA

### PROPOSAMEN EKONOMIKOA (BEZa barne)

1.- Urkaz Eraikuntzak S.L.	60.733,25 €
2.- Construcciones Vda. de Garmendia, S.L.	64.024,49 €
3.- Construcciones Francisco Aierbe, S.L.	64.038,52€
4.- Construcciones Uzturpe, S.L.	70.542,18 €

**Hirugarrena.-** Aurkeztu diren lizitatzailer guztiei adjudikazio jakinaraztea.

**Tercero.-** Notificar la adjudicación a todos los licitadores.

**Laugarrena.-** Kontratua formalizatzeko hamabost baliodun eguneko epea jartzea, lizitatzailerri adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

**Cuarto.-** Establecer que el contrato se formalizará dentro de los 15 días hábiles a contar desde la notificación de la adjudicación a los licitadores.

**Bosgarrena.-** Kontratuaren formalizazioa profilean argitaratzea, adjudikatzen denetik berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

**Quinto.-** Publicar la formalización del contrato en el perfil del contratante, dentro del plazo de cuarenta y ocho días, contados desde la fecha de la adjudicación.

## **6.- Galtzaundi euskara taldeari diru laguntza.**

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2014ko otsailaren 2lean, erabaki zuen Galtzaundi Euskara Taldearekin lankidetzako hitzarmen bat egitea, Tolosan euskararen erabilera normalizatzeko egitasmo batzuk aurrera eramateko 2014etik 2017ra, biak barne.

Hitzarmen hura 2014ko martxoaren 10ean izenpetu zuten Tolosako Udalak eta Galtzaundi Euskara Taldeak.

Ildo horretatik, 2015eko otsailaren 2an, Tolosako Udaleko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordean, Galtzaundiren 2014ko jardueren eta 2015eko egitasmoen txostena aurkeztu zuen aipatu euskara taldearen ordezkariak, eta batzordeak ontzat jo zuen.

Hitzarmenera itzuliz, hark dio Tolosako Udalak 54.000 euroko laguntza emango ziola Galtzaundiri 2014an, eta urtez urte, 2017a arte, KPIa igoko zaiola diru laguntza horri.

Bestetik, hitzarmenak berak dio Galtzaundi Euskara Taldeak urteko diru laguntzaren % 60 jasoko duela apirila baino lehen, eta gainontzekoa, % 40, laguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkeztean.

Hori guztia kontuan hartuta, hau da, batetik, hitzarmenak dioena eta, bestetik, Galtzaundik Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordean aurkeztutako txostena (2015eko egitasmoa barne), Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**-• 54.000 euroko gastua onartzea, hain zuzen ere, diru laguntza gisara Galtzaundi Euskara Taldeari emateko 2015 urtean, eta, era berean, kopuru horren % 60 aurreratzea Galtzaundiri, hitzarmenak dioenaren arabera.

**BIGARRENA.**-Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza departamentuari eta interesatuari.

### **7.- 2015/290 Alkate dekretua berrestea.**

2015/48 fakturen erlazioa Alkate Dekretuaren bidez onartu da . Kopurua: 23.635,60 eurokoa da.

Gobernu Batzarra jakinaren gainean geratu da.

### **8.- 49/2014 zenbakia duen faktura- zerrenda.**

Kontuhartzailletzak **49/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **10.852,07** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** 49/2014 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**9.- 2/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **2/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **17.827,49** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA.-** 2/2015 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:**

**Tolosako “lurre auzoko parkea berritzeko” obraren esleipena.-**

2014ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Udal Gobernu Batzarrak klausula administratiboen agiria eta espedientea onartu zituen Tolosako “Martin Jose Iraola kaleko (bikoitiak) zorua berritzeko” obrak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuz kontratatzeko.

**Adjudicación de las obras de “Renovación del parque del barrio de lurre” de Tolosa.**

La Junta de Gobierno Local, de fecha 19 de diciembre de 2014, aprobó el expediente y los pliegos de cláusulas administrativas para la contratación por el procedimiento negociado sin publicidad de las obras de “Renovación del parque del barrio de lurre” de Tolosa.

Eskaintzak aurkezteko epean, honako hauek aurkeztu dira

Durante el plazo de presentación de ofertas, se han presentado las siguientes proposiciones:

- Construcciones Uzturpe, S.L.
- Construcciones Vda. de Garmendia, S.L.
- Urkaz Eraikuntzak, S.L.
- Otegi Eraikuntzak, S.L.
- Construcciones Hugar, S.L.
- Construcciones Echaide, S.A.
- Construcciones Francisco Aierbe, S.L.

Udal teknikariak, 2015eko otsailaren 9an txostenean dio Construcciones Echaide, S.L., enpresak aurkeztutako eskaintza neurrigabetzat hartzen dela eta Construcciones Uzturpe, S.L., enpresak aurkeztutako, berriz, oinarrizko aurrekontua baino handiagoa dela.

Hortaz, proposatzen du udal teknikariak lizitazioz kanpo uztea aipatutako proposamenak.

Gauzak horrela, otsailaren 12ko 2015/0257 dekretuaren bitartez, Otegi Eraikuntzak, S.L., enpresari zenbait dokumentu aurkezteko errekerimendua egin zaio.

2015eko otsailaren 25ean Otegi Eraikuntzak, S.L., enpresak aurkeztu du aipatutako dokumentazioa.

Horregatik guztiagatik, eta kontua harturik azalapen honetan azaldutakoa eta Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratuaren 151.4 artikulua xedatuaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**Lehena.-** Ez onartzea adjudikazioa prozeduran jarraian aipatzen diren eskaintzak: Construcciones Echaide, S.L., enpresak aurkeztutako neurrigabetzat hartzen delako, eta construcciones Uzturpe, S.L., enpresak aurkeztutakoa, berriz, oinarrizko aurrekontua baino handiagoa delako.

**Bigarrena.-** Lizitazio egintza baliozkotzat jotzea eta Otegi Eraikuntzak, S.L., enpresari adjudikatzea "lurre auzoko parkea berritzeko" obraren kontratua, hurrengo era honetan:

- Prezioa: 90.619,84 € (BEZa barne)
- Exekuzio epea: 2 hilabetekoa.

Aipatu adjudikazioaren oinarria udal teknikariaren txostenean jarritako arrazoiak izan dira, hauexek, laburbilduta:

Mediante informe, de fecha 9 de febrero de 2015, el técnico municipal estima que la oferta presentada por Construcciones Echaide, S.L., es desproporcionada, y la presentada por Construcciones Uzturpe, S.L., excede el precio de licitación, y, por tanto, propone dejar fuera del procedimiento las reseñadas proposiciones.

En base a ello, mediante decreto 2015/0257, de 12 de febrero se requiere a Otegi Eraikuntzak, S.L., a que presente determinada documentación.

Con fecha 25 de febrero de 2015, la empresa Otegi Eraikuntzak, S.L., presenta la documentación referida.

Por todo ello, teniendo en cuenta lo expuesto en la parte expositiva, y de conformidad al artículo 151.4 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## ACUERDA

**Primero.-** No admitir las siguientes ofertas: la presentada por Construcciones Echaide, S.A., por ser desproporcionada, y la presentada por Construcciones Uzturpe, S.L., porque excede el precio de licitación.

**Segundo.-** Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a Otegi Eraikuntzak, S.L., el contrato de obras para "Renovación del parque del barrio de lurre" de Tolosa, en los siguientes términos:

- Precio: 90.619,84 € (IVA incluido).
- Plazo de ejecución: 2 meses

Dicha adjudicación se realiza en base a los motivos argumentados en los informe emitidos por el técnico municipal, y que se resume de la siguiente manera:

**ENPRESAREN IZENA****PROSAMEN EKONOMIKOA  
(BEZa barne)**

1.- Otegi Eraikuntzak, S.L..	90.691,84 €
2.- Construcciones Fco. Aierbe, S.L.	90.713,68€
3.- Construcciones Vda. de Garmendia, S.L.	95.760,96 €
4.- Urkaz Eraikuntzak, S.L.	96.097,89€
5.- Construcciones Hugar, S.L.	96.623,15€

**Hirugarrena.-** Aurkeztu diren lizitatzailerak **Tercero.-** Notificar la adjudicación a todos guztiei adjudikazio jakinaraztea. los licitadores.

**Laugarrena.-** Kontratua formalizatzeko **Cuarto.-** Establecer que el contrato se hamabost baliodun eguneko epea jartzea, formalizará dentro de los 15 días hábiles lizitatzailerak adjudikazio hau jakinarazi den desde la notificación de la adjudicación a los egunetik hasita. licitadores.

**Bosgarrena.-** Kontratuaren formalizazioa **Quinto.-** Publicar la formalización del profilean argitaratzea, Adjudikatzenetik contrato en el perfil del contratante, dentro berrogeita zortzi eguneko epearen barruan. del plazo de cuarenta y ocho días, contados desde la fecha de la adjudicación.

**Abegi Elkarteari udal diru laguntza emateko proposamena.**

ABEGI Elkartek bere zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko dirulaguntza behar du. Gizarte Zerbitzuketako teknikariaren txostenaren arabera, Tolosako Udalak ABEGI Elkarteari dirulaguntza emateko, beharrezkoa da eskaintzen dituen zerbitzuak zehazten dituen eta bi entitateen arteko elkarlanaren inguruko baldintzak ezartzen dituen hitzarmen bat sinatzea.

2015 urterarte, Gipuzkoako Aldundiak ematen zituen dirulaguntza hauek. Aurrerantzean, ordea, Aldundiaren eta Udalaren arteko eskuduntza gaia dela eta, Tolosako Udala izango da dirulaguntza hau ematearen erantzule.

2015 eta hurrengo urteetako hitzarmenaren edukia Gipuzkoako Aldundiarekin buruturiko bileran zehaztuko da; izan ere, indarrean dago ABEGI Elkartek Gipuzkoako Aldundiarekin sinatuta duen hitzarmena.

Hala ere, oraindik bilerarik egon ez denez, eta ABEGI Elkarteari urtean eman beharreko diru kopurua 68.300 eurokoa denez, hiruhileko honi dagokion 17,075 euroko kopurua ematea proposatu da, beharrezkoa baititu Elkartek ordaindu langileen soldatak.

Hortaz, Gizarte Politikak eta Osasun Batzordeak jaulkitutako diktamenak dioena azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** ABEGI Elkarteari lehenengo lauhilekoari dagokion 17.075 euroko dirulaguntza ( 68.300: 4= 17.075) ematea.

**BIGARRENA.-** Aipaturiko dirulaguntza eskuratzeko baldintza hauek xedatzea:

- 2015. urteko lehen hiruhilekorako aurreikusita dauden diru sarrera eta gastuen aurrekontua aurkeztea, beste erakunde publiko zein pribatuengandik jaso dituzten edo edo jaso behar dituzten dirulaguntzak adierazi beharko direlarik.
- Zerga obligazioen eguneraketa frogatzen duen ziurtagiria aurkeztea.
- Gizarte Segurantzako obligazioaen eguneraketa frogatzen duen ziurtagiria aurkeztea.
- ABEGI Elkarteak hitzeman behar du, apirileko lehen astean, 2015. urteko lehen hiruhilekoaren inguruko memoria, balantze ekonomiko eta benetako fakturak aurkeztuko dituela.

**HIRUGARRENA.-** Honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Gizarte Zerbitzuei eta interesduna den ABEGI Elkarteari.

**50/2014 zenbakia duen faktura- zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **50/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **51.147,59** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** **50/2014** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**